

'Oraire' eskapu liburua kaleratu du Nerea Loiolak

Intza Trula 2025eko azaroaren 10a

Entzun ▶ ▼



Nerea Loiola 'Oraire' eskapu liburua eskuetan duela. (Utzitakoa)

Gaztetxoei zuzendutako laugarren eskapu liburua da Zarauzko bizilagunak kaleratu berri duena. Oraire izeneko laino gidariak zuzenduko du irakurlea, "lainoetan" gertatzen den istorio batean. Loiolak 2019an idatzitako *Azken lanhūtarra* nobelaren jarraipena da.

Oraire gaztetxoei zuzendutako eskapu liburua kaleratu berri du Nerea Loiola Zarauzko bizilagun debarrak, Erein argitaletxearekin. Eskapu bildumako laugarren lana du honakoa, eta aurrekoen egitura antzekoa badu ere, Oraire da oraingoan liburuko protagonista: laino gidaria.

Baliteke Loiolaren literatura ezagutzen dutenek Oraire ere ezagutzea, ez baita idazleak azken eskapu liburu honetarako asmatutako pertsonaia bat. 2019an kaleratutako *Azken lanhūtarra* gaztetxoentzako nobelan ageri zen laino gidaria, hain justu ere. Duela urte batzuk kaleratutako lan horren bigarren zatia izango litzateke *Oraire*, Loiolaren hitzetan.

Idazleak aitortu du eleberri hori amaitu bezain pronto heldu nahi izan ziola istorioaren bigarren zatia idazteari: "Aurkezpenetara gerturatzen zirenek ere galdetzen zidaten ea istorioak jarraipena izango zuen ala ez". Baina, arrazoi ezberdinak medio, ezin izan zion une horretan istorioaren jarraipenari heldu. Nobela hori kontuan izan du orain, eskapu liburu moldera eraman eta irakurleari bigarren zati bat eskaintzeko.

Hala, fantasiazko lana da *Oraire*, eta Loiolaren esanetan "hodeietan gertatzen da". Orairek, lainoen gidariak, mezu bat emango dio irakurleari, istorioari hasiera emanaz. Idatziz horrek dio uraren zikloa ez dela naturala, lainoen gidariak zuzentzen duten zerbait baizik. "Beraiek aukeratzen dute non eta nola egiten duen euria", gehitu du idazleak. Oraire da bizirik geratzen den laino gidari bakarra, gainontzekoak hil egin baitira; horregatik, protagonistak laguntza eskatuko dio irakurleari.

Loiolak aitortu duenez, "erabaki zailak" hartu beharko ditu irakurleak aurrera egin nahi badu. Hainbat dira orrialde horietan idazleak jorratu nahi izan dituen gaiak; hala nola laguntasuna, ongizate pertsonala ongizate sozialaren aurka, ekologismoa, boterea, erabakiak hartzea eta bigarren aukerak.

2022an kaleratu zuen idazleak bere lehen eskapu liburua, *Zazpi* Gizenburupean, eta ia urtebeteko epean plazaratzen joan da gainerakoak; 2023an, *Azken denbora*, eta iaz *AHT Abiadura Handiko Trena*. Aurreko eskapu liburuen eskema bera jarraitzen du labetik atera berriak ere; hau da, irakurlea da protagonista, eta berak aukeratuko du istorioaren norabidea, orrialdeetan ageri diren galderei erantzuten doan heinean. Hori ez ezik, aurrera egiteko enigmak ere ebatzi beharko ditu.

KULTURA ZARAUTZ

Zarautz Gukak zu bezalako irakurleen babesa behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalean lantzen jarraitzeko.

[Izan Gukakide](#)

Erantzun ▼

Batela Prest

Zarauz - Janari dendak

Izar Optika

Zarauz - Optikak

Garcia Edari Banaketak

Zarauz - Ardoak

Klimb Zarautz

Zarauz - kirola

Beste behin ere arrakastatsua izan da Zirikaren kantu bazkaria

Oxel Oregik bosgarren amaitu du Taghazout Pro Junior txapelketan

Tom Lizarazu: "Sorkuntzak merezi du horrelako pausa bat"

"The Fairy Queen" ikustera joateko autobusa antolatuta dute

Ikusienak

Eguzkia lagun, giro bikainean jokatu dute plaieroetako laugarren jardunaldia

Aiora Arriola aza 09, 17:00

KIROLA

Beste behin ere arrakastatsua izan da Zirikaren kantu bazkaria

Zirika, Zarauzko aza 10

EUSKARA

Nerea Arruti eta Unai Goitia gailendu dira Urdanetan aizkora eta ingude txapelketetan

Onintza Lete Arrieta aza 10, 13:08

KIROLA

'Oraire' eskapu liburua kaleratu du Nerea Loiolak

Intza Trula aza 10, 13:15

KULTURA

Zarauztarrak nagusi, Euskadiko Harri Jasotze Txapelketan

Ian Ruiz Lizaso aza 10, 11:30

KIROLA

Francoren heriotza, herritarren artean poza eta esperantza piztu zituen eguna

FRANKISMOA: ORBAINAREN MINTZOA

Usua Garin-Mireia Galarza-Gorka Elizagirre aza 10, 18:00

POLITIKA

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

Araba kalea 27 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
Telefona: 943 89 00 17 | Helbide elektronikoa: zarautz@ukt.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA IRRATIA	ATARIA	AZPEITIA GUKA	AZKOITIA GUKA	BARREN	BEGITU
BERRIKETAN	DROGETEN ITTURRI	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	GUAIXE	GUKA	GUKA TELEBISTA		
HIRUKA	KRONIKA	MAILOPE	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	ORIO GUKA	PLAENTXIA	TXINTXARRI	URIOLA	ZARAUTZ GUKA		
					ZUMAIA GUKA	28 KANALA					

Matx Gurean Ttap

Tokikom publikitateak